

## **2186/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 30ekoa, zergen kontu korrontearen sistema garatzen duena. (BAO Abuztuaren 13koa)**

Abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak onetsi duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudiaren 39. artikuluan ezarri da zorrak eta kredituak konpentsazioz kitatu daitezkeela zergen kontu korronte sistema baten bidez. Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak emandako foru aginduan ezarriko dira sistemaren betekizunak eta baldintzak.

2005eko abenduaren 28an 3249/2005 Foru Agindua onetsi zen, zergen kontu korrontearen sistema garatu zuena.

Orain, Bizkaiko Foru Ogasunak sistema berri bat ezarri nahi du, zorrak finantzatzeko egungo beharrezanetara egokituko dena (batez ere krisi ekonomiko-finantzarioa bizi dugun garai honetan) eta, gainera, izapideak erraztuko dituena. Azken batean, zergapeko ahalik eta gehienen kobrantzak eta ordainketak errazago kudeatuko dituen sistema ezarri nahi du.

Beraz, foru agindu honen bidez 3.249/2005 Foru Aginduan ezarritako sistema osatuko da: zerga zorrak konpentsazio bidez kitatzeko modalitate berria ezarriko da zergen kontu korrontearen sistema irekiaren barruan. Horri esker, zergapekoak sobera izan dezakeen kreditua ahalik eta arinen eskuratuko du eta ez zaio ordaintzeko eskatuko harik eta Zerga Administrazioa konpentsatu nahi den itzulketa agintzera behartuta egon arte. Xedea da, bada, Foru Ogasunari ordainketak egin behar zaizkionean baina era berean Foru Ogasun horrek oraindik itzulketak egin behar dituenen diruzaintzan sor daitekeen desoreka arintzea.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

### **1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.**

1. Foru agindu honen xedea da zergen kontu korrontearen sistemako betekizunak eta baldintzak ezartzea, zergapekoak zerga zorrak eta kredituak konpentsazio bidez kita ditzan.
2. Oro har, zergen kontu korrontearen sistemari heldu ahal izango diote foru agindu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergapekoek, haien zorrei eta kredituei dagokienez. Dena den, soilik sartu ahal izango dira sisteman foru aginduan ezarritakoa betetzen duten zor eta kreditu jakin batzuk.
3. Zergen kontu korrontearen sistema aplikatzen bazaie hari heltzen dioten zor eta kredituei, ezin izango dira aplikatu indarreko zerga-bilketari buruzko araudian ezartzen diren alde batek eskatutako eta espezietan ordaindutako konpentsazio prozedurak.
4. Zergen kontu korrontearen sistema erabili nahi duten zergapekoek hurrengo betekizunak bete behar izango dituzte:
  - a) Zerga betebeharrak beteta izatea eta kontua indarrean dagoen bitartean betetzen jarraitzea.
  - b) Eskabidea egin denaren aurreko bi ekitaldian kontu korrontearen sistemari uko egin ez izatea.
  - c) Hirugarrenekin zorrik ez edukitzea eta horiengatik enbargoa egiteko eginbiderik ez izatea, zergen kontu korrontearen sistema aplikatzeko eskabidea egin baino lehen.

## **2. artikulua. Zergen kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatzeko eskabideak.**

1. Zergen kontu korrontearen sistemari heltzeko prozedura hasi dadin, zergapekoak Diruzaintza eta Bermeen Zerbitzuan aurkeztu behar du eskabidea. Bertan, sistema zein zor eta kredituri aplikatu nahi zaion zehaztu beharko da.
2. Zergapekoaren eskabidean zergen kontu korrontearen sisteman sartzeko moduko zor eta kreditu guztiak jasotzen badira, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ebazpen baten bidez baimendu ahal izango du zergapekoa zergen kontu korrontearen sisteman sartzea, eskabidea aurkeztu eta bi hilabetetan. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, zergen kontu korrontearen sisteman sartzeko eskabideari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.
3. Zergapekoaren eskabidea zor eta kreditu jakin batzuei buruzkoa bada, sistema aplikatu nahi zaien sartzeko autolikidazioak aurkezteko epean aurkeztu behar da eskabidea. Horrekin batera, eta autolikidazioak telematikoki aurkeztu ez badira, horien kopia bana ere aurkeztu behar da eta berariaz adieraziko da zein diren konpentsatu nahi diren kredituetan itzultzekoak diren autolikidazioak.

Zergen kontu korrontearen sistema horri heltzeko zergapekoak itzultzeko autolikidazio bat aurkeztu behar du epe barruan eta eskabidea baino lehen, konpentsatu nahi den zorraren besteko zenbatekoa edo zenbateko handiagoa duena; bestela, aldea ordaindu beharko da.

Zergapekoak eskabidea egin duela ulertuko da konpentsatzeko eskabidea aurkeztu eta foru agindu honetan zor eta kredituetarako ezarri diren betekizunak betetzen dituenean.

## **3. artikulua. Konpentsatu nahi diren zorrak eta kredituak.**

1. Aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako kasuan, zergen kontu korrontearen sisteman zergapekoari aitortutako kreditu gisa jasoko dira Sozietateen gaineko Zergako eta Balio Erantsiaren gaineko Zergako adostutako itzulketak; bestalde, kontrako zeinuarekin jasoko dira zerga kontzeptu horien ondoriozko zorraren zenbatekoa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako beste ordainketa batzuen zenbatekoa.
2. Aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako kasuan, konpentsa daitezkeen kredituak izango dira Sozietateen gaineko Zergarenak eta Balio Erantsiaren gaineko Zergarenak; era berean, konpentsa daitezkeen zorrak izango dira aurreko zerga kontzeptu guztien ondoriozkoak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren norberaren lanaren konturako atxikipenak.
3. Ezin dira zergen kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatu hurrengo kredituak eta zorrak:
  - a) Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean zerga zorrak borondatezko aldian aurkezteko ezarri den epeaz kanpo aurkezten diren autolikidazioen ondoriozko zorrak.
  - b) Zerga Administrazioaren organoek egindako likidazioen ondoriozkoak.
  - c) Berrikusteko prozedura berezietan edo errekurtsu eta erreklamazioen ebazpenetan aitortu diren itzulketen kredituak.

## **4. artikulua. Zergen kontu korrontea ezeztatzea eta horri uko egitea.**

1. Zergen kontu korrontea edozein unetan ezeztatuko da hurrengo inguruabarretakoren bat gertatzen denean:
  - a) Zergapekoaren konkurtso adierazpena.
  - b) Zergapekoa hiltzea edo ezinduta gelditzea.

- c) Erakundea desegitea.
  - d) Sozietatea, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bategineko 260. artikuluko 1. idatz-zatiko 4. zenbakian aurreikusten den ondare egoeraren batean egotea urtebete baino denbora luzeagoan, sozietate anonimoaren itxura izan ez arren.
2. Zergapekoak edonoiz egin ahal dio uko zergen kontu korronteari, aldezturik Diruzaintza eta Bermeen Zerbitzuari eskabidea egin badio. Idazkia aurkeztu eta hurrengo hamabost egunetan izango ditu ondorioak uko egite horrek.
  3. Aurreko bi idatz-zatietan azaldutako kasuetan, kontu korrontearen behin betiko likidazioa egingo da aurreko inguruabarrak gertatzen direnean edo uko egiteak ondorioak dituenean, foru agindu honetako 7 eta 10. artikuluetan ezarritakoa betez.

## **1. ATALA**

### **ZERGEN KONTU KORRONTEAREN SISTEMAREN ARAUBIDE OROKORRA**

#### **5. artikulua. Foru Administrazioaren aldeko zorraren gehieneko muga.**

1. Foru Administrazioaren aldeko saldoa administrazioak berak ezarriko du. Likidatu diren azken 24 hilabeteetako likidazioetan hitzartutako itzulketen urteko batezbestekoaren % 50ekoa izango da saldo hori gehienez.

Enpresa azken bi ekitaldietan hasi bada jardunean, gehieneko zenbatekoa ezartzean hurrengo ekitaldirako aurreikuspenak hartuko dira kontuan.

2. Baimen ebazpenean zehaztuko da zein izango den Foru Administrazioaren aldeko gehieneko saldoa, eta zenbateko hori ekitaldi bakoitzeko urtarilean eguneratuko da.
3. Dena den, muga hori gehitu ahal izango da baldin eta Foru Administrazioaren alde bi zenbatekoen arteko kenketaren bermea egiten bada banku abalaren edo alde bateko ondasun higiezinen gaineko hipotekaren bidez.

#### **6. artikulua. Zerga zorren eta kredituen gaineko ondorioak.**

1. Zergen kontu korrontearen sistema aplikatzean, sistema horri helduko dioten zor eta kreditu guztiak kontuaren likidaziorako zenbatu beharko dira; zerga zorra ordaintzeko epearen mugaegunetik edo dagokion itzulketa egitea erabakitzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.
2. Idaztohartu beharreko zorrak eta kredituak ezingo dira banaka eskatu zergen kontu korrontea indarrean dagoen bitartean; izan ere, likidazioaren ondoren ateratzen den saldoagatik bakarrik eskatu ahal izango dira.

#### **7. artikulua. Zergen kontu korrontearen iraupena eta likidazioa.**

1. Zergen kontu korrontearen iraupena mugagabea izango da eta, oro har, ekitaldi bakoitzeko maiatzaren 30ean eta azaroaren 30ean likidatuko da.
2. Aparteko likidazioak ere egingo dira, Foru Administrazioaren aldeko saldoaren gehieneko zenbatekoa gainditzen denean; kasu horretan, zenbateko hori gainditzen duen saldoaren likidazioa eskatuko da.
3. Zergapekoari Diruzaintza eta Bermeen Zerbitzuak ezarritako saldoaren berri emango zaio. Horrela, honek hamar egun izango ditu ezarpen horren aurkako alegazioak aurkezteko eta beharrezkotzat jotzen dituen agiriak edo frogagiriak aurkezteko.

Epe hori igarotzen denean, Diruzaintza eta Bermeen Zerbitzuko Burutzak 15 egunetan behin-behineko likidazioa egingo du edo, zergapekoaren aldeko zenbatekoa ateratzen bada, Foru Administrazioak ordainketa egiteko aginduko du.

Alabaina, Foru Administrazioaren aldeko zenbatekoa ateratzen bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean Foru Administrazioak egindako likidazioetarako ezartzen den epe barruan ordaindu beharko du zergapekoak. 500 eurotik beherako likidazioak ez dira ordaindu behar; ateratzen den saldoa hurrengo likidaziora eramango da.

4. Saldoa zehazteko, aurreko artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen den datatik likidazioa egiten den egunera arteko berandutza korrituak hartuko dira kontuan. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluan ezartzen den berandutza korrituaren tasa aplikatuko da.
5. Zergapekoak ez badu ordaintzen zergen kontu korrontearen likidazioan ateratzen den saldoa Foru Administrazioak egindako likidazioetarako ezartzen den epe barruan, ordainarazpen aldia hasiko da.

Likidazioaren saldoaren ordainketa ezin da geroratu edo zatikatu.

## **2. ATALA**

### **ZOR ETA KREDITU JAKIN BATZUK ZERGEN KONTU KORRONTEAREN SISTEMAREN BIDEZ KONPENTSATZEKO ARAUBIDEA**

#### **8. artikulua. Konpentsa daitekeen gehieneko zenbatekoa**

Zergapeko batek zor kopuru jakin bat konpentsatu ahal izango du gehienez sistema horren bidez: aitortu gabe dauden itzultzeko eskabideen zenbateko osoa, baina ofizioz konpentsa daitezkeen geroratutako zorren zenbatekoa kenduta, Zerga-bilketari buruzko Araudiaren 36. artikuluko 5. idatz-zatiaren c) letran xedatutakoa betez, edo ebatzi gabe dauden geroratzeko eskatu diren zorren zenbateko osoa gehienez. Gehieneko kopuru hori zehazteko, betebeharraren nagusiaren zenbatekoa bakarrik hartuko da kontuan.

#### **9. artikulua. Zerga zorren eta kredituen gaineko ondorioak.**

1. Zergen kontu korrontearen sistemaren bidez konpentsatzeko eskabideak aurkeztuz gero, zergapekoak sistemari heltzeko xedetzat dituen zorrak (aurreko artikuluan ezarritako mugarekin) ordainarazteko aldiaren hasiera eten egingo da.
2. Sistema hori aplikatuko zaien zorrak eta kredituak ezingo dira banaka eskatu; halaber, konpentsazio bidez kitatuko dira zergapekoaren aldeko kreditua aitortzen denean, dagokion zenbatekoan, eta zorren mugaegunetik sortu diren berandutza korrituak barne.

Zorrak ezin izango dira kitatu zerga betebeharraren mugaegunetik zazpi hilabete igaro badira. Horrelakoetan, zerga betebeharra eta bidezkoak diren berandutza korrituak ordaintzeko eskatuko da.

#### **10. artikulua. Zergen kontu korrontea likidatzea.**

Zergen kontu korrontea edozein unetan likidatuko da hurrengo inguruabarretakoren bat gertatzen denean:

- a) Konpentsatu beharreko zerga zorrik ez egotea. Orduan, zergapekoari aitortutako kredituen gairik zergapeko horren alde likidatuko dira.
- b) Zergapekoaren aldeko aitortu gabeko krediturik ez egotea, edo aurreko 4. artikuluan azaldu den egoeraren bat gertatzea; azken kasu honetan, ordaindu gabe dagoen zor osoa gehi bidezkoak diren berandutza korrituak ordaintzeko eskatuko da.

Aurreko idatz-zatian azaldutakoaren arabera, ordaindu gabe dagoen zorra jakinarazpena egiten den egunetik hilabeteko epean ordaindu behar da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean Administrazioak egin duen likidazioaren ondoriozko zerga zorrak ordaintzeko epea ezartzean xedatutakoa betez.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indarrik gabe geratzen da abenduaren 28ko 3.249/2005 Foru Agindua, zergen kontu korrontearen sistema garatu duena.

## **AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Era berean, foru agindu honetako 2. artikulua 3. idatz-zatiko azken paragrafoan aipatu diren konpentsatzeko eskabideetan izango ditu ondorioak, baldin eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu badira.

Bilbon, 2009ko uztailaren 30ean.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua,

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ